

**Erromantzeak**

# Erromantzeak

- **Neska ontziratua**
- **Isabelatxu**
- **Leixibatxo**
- **Bereterretxeren kantoria**
- **Egun bereko alarguntsa**
- **Neska soldadua**
- **Peru gurea**
- **Atharratze jauregia**

## Hurbilketa

Atal honetan *erromantze* edo *balada* deitzen direnak izango ditugu langai. Baina, zer dakizu gai horretaz?

Hona hausnarketarako zenbait galdera:

- Entzun al duzu inoiz gure kantarien ahotsetan *Atharratzeko anderea* edo *Goizian goizik* edo *Jaun Barua* aspaldin bezalako kantarik?
- Ikusi al duzu *Betiereko sua* filma?
- Badakizu erromantzeek ez dutela egile ezagunik, anonimoak direla, alegia?

## Erromantzeak

<i>Neska ontziratuarena</i> .....	7
○ <b>Irudiak eta hitzak</b>	
○ <b>Ulermena eta lanketa</b>	
○ <b>Baliabideak</b>	
<i>Isabelatxu</i> .....	15
○ <b>Irudiak eta hitzak</b>	
○ <b>Ulermena eta lanketa</b>	
○ <b>Baliabideak</b>	
<i>Leixibatxoa</i> .....	22
○ <b>Ulermena eta lanketa</b>	
○ <b>Baliabideak</b>	
<i>Bereterretxeren kantoria</i> .....	24
○ <b>Irudiak eta hitzak</b>	
○ <b>Ulermena eta lanketa</b>	
○ <b>Baliabideak</b>	
<i>Egun bereko alarguntsa</i> .....	33
○ <b>Ulermena</b>	
○ <b>Irudiak eta hitzak</b>	
<i>Neska soldadua</i> .....	35
○ <b>Ulermena</b>	
<i>Peru gurea</i> .....	36
○ <b>Ulermena</b>	
<i>Atharratze jauregian</i> .....	37
 <b>Ikasitakoa bilduz</b> .....	38
 <b>Erromantzetik ipuinera</b>	
 <b>Zeure balada sortzen</b>	

Ondoren duzun balada eder hau errexitatu edo, doinua badakizu, kanta ezazu. Jakizu XVII. mendean duela jatorria, herriaren ahotik jasoa dela eta beste erromantze askorekin batera Herri Literaturaren emaitza balio-tsua dela.

## Neska ontziratuarena

**Brodatzen:**

bordatzen

**salan:** etxean

**ahaire:** doinua,

kanta

**gan:** joan

**hean jaliko:** ea

irtengo

**gibeleko:** atzeko

**erron:** esaion

**jin:** etor

**xarmanta:** ederra

**hoi:** hori

**aitzina:** aurrera

**ezin ilkia baitut:**

ezin irten naiteke

**igaiten:** igoten

**papora:** lurrina

**gaixo:** koitadua

I Brodatzen ari nintzen  
ene salan jarriarik  
ahaire bat entzun nuen  
itsasoko aldetik,  
itsasoko aldetik  
untzian kantaturik.

II Brodatzea utzirik  
gan nintzen amagana  
hean jaliko nintzen  
gibeleko leihora,  
gibeleko leihora  
itsasoko aldera.

III Bai, habil, haurra, habil  
erron kapitainari  
jin dadin afaitera  
hemen deskantsatzera,  
hemen deskantsatzera  
salaren ikustera.

IV Jaun kapitaina, amak  
igortzen nau zugana  
jin zaiten afaitera  
hantxet deskantsatzera,  
hantxet deskantsatzera  
salaren ikustera.

V Andre gazte xarmanta,  
hoi ezin ditekena  
ipar haizea dugu  
gan behar dut aitzina,  
ezin ilkia baitut  
hauxe da ene pena.

VI Andre gazte xarmanta,  
zu sar zaitte untzira  
gurekin afaitera  
eta deskantsatzera  
hortxet deskantsatzera  
salaren ikustera.

VII Andre gazte xarmanta  
igaiten da untzira,  
han emaiten diote  
lo belarra papora  
eta untzi handian  
lo dago gaixo haurra.

VIII Jaun kapitaina, nora  
deramazu zuk haurra?  
Zaluxko itzulazu  
hartu duzun lekura,  
hartu duzun lekura  
aita-amen gortera.

IX Nere marinel ona,  
heda zak heda bela;  
beti nahi nuena  
jina zaitak aldera,  
ez duk hain usu jiten  
zoriona eskura.

X Jaun kapitaina, nora  
ekarri nauzu huna?  
Zalu itzul nezazu  
hartu nauzun lekura,  
hartu nauzun lekura  
aita-amen gortera.

XI Andre gazte xarmanta,  
hori ezin egina  
hiru ehun lekutan  
juanak gira aitzina  
ene meneko zira  
orain duzu orena.

XII Andre gazte xarmantak  
hor hartzen du ezpata  
bihotzetik sartzen ta  
hila doa lurrera,  
aldiz haren arima  
hegaldaka zerura.

XIII Nere kapitan jauna,  
hauxe duzu malurra.  
Nere marinel ona,  
norat aurtiki haurra?  
Norat aurtiki haurra?  
Hortxet itsas zolara.

XIV Hiru ehun lekutan  
dago itsas leihorra.  
Oi Ama anderea,  
so egizu leihora,  
zur'alaba gaixoa  
uhinak derabila.

**Zaluxko:** berehalaxe

**itzulazu:** itzul ezazu

**gortera:** artera

**jina zaitak:** etorri

zaidak

**aldera:** ondora

**usu:** sarri, maiz

**Zalu:** arin, laster

**lekutan:** legoatan

**meneko:** menpeko

**orena:** ordua

**malurra:** zorigaitza

**aurtiki:** jaurtiki

**zolara:** hondora

## IRUDIAK ETA HITZAK

Bilatu eta itsatsi bertso bakoitzari dagokion irudia (87. orrialdea) eta osatu falta diren lerroak.

### Neska ontziratuaarena




I Brodatzen ari nintzen  
ene salan jarririk  
abaire bat entzun nuen  
itsasoko aldetik,  
.....  
untzian kantaturik.



II Brodatzea utzirik  
.....  
bean jaliko nintzen  
gibeleko leibora,  
gibeleko leibora  
itsasoko aldera.



III Bai, habil, haurra, habil  
erron kapitainari  
.....  
hemen deskantsatzera,  
hemen deskantsatzera  
salaren ikustera.



IV Jaun kapitaina, amak  
.....  
jin zaiten afaitera  
bantxet deskantsatzera,  
bantxet deskantsatzera  
salaren ikustera.



V Andre gazte xarmanta,  
boi ezin ditekena  
.....  
gan behar dut aitzina,  
ezin ilkia baitut  
bause da ene pena.




VI Andre gazte xarmanta,  
zu sar zaite untzira  
gurekin afaitera  
eta deskantsatzera,  
hortxet deskantsatzera  
.....



**VII** Andre gazte xarmanta  
igaiten da untzira,  
ban emaiten diote  
.....  
eta untzi bandian  
lo dago gaixo haurra.



**VIII** Jaun kapitaina, nora  
deramazu zuk haurra?  
Zaluxko itzulazu  
bartu duzun lekura,  
bartu duzun lekura  
.....



**IX** Nere marinel ona,  
beda zak beda bela;  
.....  
jina zaitak aldera,  
ez duk bain usu jiten  
zoriona eskura.




**X** Jaun kapitaina, nora  
ekarri nauzu hunra?  
.....  
bartu nauzun lekura,  
bartu nauzun lekura  
aita-amen gortera.



**XI** Andre gazte xarmanta,  
bori ezin egina  
biru ebun lekutan  
juanak gira aitzina,  
.....  
orain duzu orena.



**XII** Andre gazte xarmantak  
bor hartzen du ezpata  
.....  
bila doa lurrera,  
aldiz baren arima  
begaldaka zerura.



**XIII** Nere kapitain jauna,  
bauxe duzu malurra.  
Nere marinel ona,  
.....  
Norat aurtiki haurra?  
Hortxet itsas zolara.



**XIV** Hiru ebun lekutan  
.....  
Oi Ama anderea,  
so egizu leibora,  
zur'alaba gaixoa  
ubinak derabila.

Amaia

# ULERMENA ETA LANKETA

## Sinonimoak

Jarraian, testuan ageri diren zenbait hitz dituzu. Testuingurua aintzat harturik, eman ezazu bakoitzaren sinonimo bana edo azalpentxoak.

Gibelego

Erron

Jin

Salaren ikustera

Xarmanta

Aitzina

Ilki

Zaluxko

Heda zak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Usu

Lekutan

Orena

Hegaldaka

Malur(r)a

Aurtiki

Zola

So egizu

Uhinak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## Ulermena

Irakurri hurrengo baieztapenak eta markatu erantzuna: egia / faltsua.

**E** **F**

- 1. Erromantzean neskatila bat da protagonista nagusia. ....
- 2. Gertaera guztiak itsas ertzeko portu batean jazotzen dira. ....
- 3. Erromantzean badira toki eta denborazko zehaztasunak. ....
- 4. Erromantzearen euskara motagatik Iparraldekoa dela esan daiteke. ....
- 5. Neskatila bihotz onekoa da, itsasontziko kapitaina bezala. ....
- 6. Kapitainak, marinelen oniritziarekin, bahitu egin du neskatila. ....
- 7. Istripu bat gertatu da itsasontzian eta neskatila hil egin da. ....
- 8. Kapitainak eta marinelak etxera itzuli nahi dute neskatila, baina urrun daude. ....

## Gaia

Kontaera ulertutakoan, saia gaitezen **gaia** zehazten, hau da, zertaz ari den, oro har, testua. Aukera ezazu hurrengo proposamenen artean:

- Elkarrekin maitemintzea
- Itsas abenturak
- Amodiozko hilketa
- Itsas gizonak
- Sexuzko bahiketa
- Ustekabeko heriotza

Arrazoitu ezazu egin duzun hautapena.

### Azalpena

.....

.....

.....

.....

## Argumentua

Argumentua eduki edo gertakari nagusien lotura kronologikoa eginez eraikitzen da. Hona hemen, ordenatu barik, bederatzi gertakari. Jar itzazu ordenan, 1etik 6ra, eta markatu gurutze batez soberan daudenak.

- ... Kapitainak neskari itsasontzira afaltzera etortzeko gonbitea luzatu dio.
- ... Neskak batek itsasondoko bere etxean bordatzen dihardu.
- ... Andre gaztearen gorpua itsasora jaurtiki dute.
- ... Neskak ezpataz marinel bat hil du.
- ... Itsasontzi bateko kapitainak abesturiko doinu batek erakarrita sentitu da neskak.
- ... Itsasontzira igondakoan neska bahitu egin dute, eta itsasoan barrena abiatu dira.
- ... Kapitainak ipar haizea duten aitzakia aipatu dio neskekari.
- ... Neskak, bahiketaz jabetzen denean, bere burua hil du ezpataz.

Bi puntu zerrendaz kanpo geratu dira. Esan zein diren eta azaldu zergatik utzi dituzun kanpoan:



.....

Arrazoia: .....



.....

Arrazoia: .....

Hurrena, goiko zerrendatik abiatuz, idatz ezazu argumentua. Kontuan izan esaldi eta ideiei lotura eman behar zaiela. Erabili lotura hitzak: *beraz, horregatik, ondoren, orduan, bala ere, baina, ordea...*

### Argumentua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



 **Espresaerak**

Erromantze honetan espresaeren erabilera konplexua antzeman dezakezu. Lehenik, adieraz ezazu bertso bakoitzean **n**arrazioa, **el**karrizketa ala **d**eskribapena azaltzen den. Erabili **N**, **E** eta **D** letrak biribil gorrixketan.

**Narrazioa**  
 Ekintzak eta gertaerak kontatzea.  
 Ezaugarria: dinamikotasuna.

**Deskribapena**  
 Izakiak, lekuak, gauzak... nolakoak diren azaltzea.  
 Ezaugarria: estatikotasuna.

**Elkarrizketa**  
 Pertsonaien adierazpenak.  
 Ezaugarria: komatxoak edo marra luzeak.

**Neska ontziratua**

<p>I Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk  <input type="radio"/> ahaire bat entzun nuen itsasoko aldetik,  <input type="radio"/> itsasoko aldetik untzian kantaturik.</p>	<p>VI Andre gazte xarmanta zu sar zaitte untzira  <input type="radio"/> gurekin afaitera eta deskantsatzera,  <input type="radio"/> hortxet deskantsatzera salaren ikustera.</p>	<p>XI Andre gazte xarmanta, hori ezin egina  <input type="radio"/> hiru ehun lekutan juanak gira aitzina,  <input type="radio"/> ene meneko zira orain duzu oreana.</p>
<p>II Brodatzea utzirik gan nintzen amagana  <input type="radio"/> hean jaliko nintzen gibleko leihora,  <input type="radio"/> gibleko leihora itsasoko aldera.</p>	<p>VII Andre gazte xarmanta igaiten da untzira,  <input type="radio"/> han emaiten diote lo belarra papora  <input type="radio"/> eta untzi handian lo dago gaixo haurra.</p>	<p>XII Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata  <input type="radio"/> bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera,  <input type="radio"/> aldiz haren arima hegaldaka zerura.</p>
<p>III Bai, habil, haurra, habil erron kapitainari  <input type="radio"/> jin dadin afaitera hemen deskantsatzera,  <input type="radio"/> hemen deskantsatzera salaren ikustera.</p>	<p>VIII Jaun kapitaina, nora deramazu zuk haurra?  <input type="radio"/> Zaluako itzulazu hartu duzun lekura,  <input type="radio"/> hartu duzun lekura aita-amen gortera.</p>	<p>XIII Nere kapitain jauna, hauxe duzu malurra.  <input type="radio"/> Nere marinela ona, norat aurtiki haurra?  <input type="radio"/> Norat aurtiki haurra? Hortxet itsas zolara.</p>
<p>IV Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana  <input type="radio"/> jin zaiten afaitera hantxet deskantsatzera,  <input type="radio"/> hantxet deskantsatzera salaren ikustera.</p>	<p>IX Nere marinela ona, heda zak heda bela;  <input type="radio"/> beti nahi nuena jina zaitak aldera,  <input type="radio"/> ez duk hain usu jiten zoriona eskura.</p>	<p>XIV Hiru ehun lekutan dago itsas leihorra.  <input type="radio"/> Oi Ama anderea, so egizu leihora,  <input type="radio"/> zur'alaba gaixoa uhinak derabila.</p>
<p>V Andre gazte xarmanta, hoi ezin ditekena  <input type="radio"/> ipar haizea dugu gan behar dut aitzina,  <input type="radio"/> ezin ilkia baitut hauxe da ene pena.</p>	<p>X Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?  <input type="radio"/> Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,  <input type="radio"/> hartu nauzun lekura aita-amen gortera.</p>	

Elkarrizketa (**E**) markatu duzun bertsoetan, zehaztu nor mintzo den: neskatxa, ama, kapitaina edo marinela.

III Ama .....

.....

.....

.....

## 🕒 Narratzailea

Erromantzean azaltzen diren narratzaile motak ere zehaztuko ditugu. Biribil beltzetan idatzi **1** edo **3**, lehen edo hirugarren pertsonako narratzailea baldin bada.

### Hirugarren pertsonakoa

- Orojakilea: gertakizunen berri duena eta pertsonaiek pentsatzen dutena dakiena.
  - Lekukoa: ikus dezakeena soilik narratzen du.
- Ezaugarria: hirugarren pertsonako adizkiak.

### Lehen pertsonakoa

- Narratzaileak bere ikuspuntutik kontatzen du.
- Ezaugarria: lehen pertsonako adizkiak.

## 🕒 Moldea: neurria eta errima

**Neurria.** Baladaren hamalau unitate horiek bertso edo *ahapaldi* deitzen dira. Baina, zelakoa da unitate bakoitza? Denak doinu berarekin kantatzeko direnez gero, lerroko silaba kopuru bera eduki behar lukete. Zenbatu lerroetako silabak eta idatzi. Irregulartasunak ere izan litezke.

I	Brodatzen ari nintzen ene salan jarriarik ahaire bat entzun nuen itsasoko aldetik, itsasoko aldetik untzian kantaturik.	7./... 7./... .../... .../... .../...	VI	Andre gazte xarmanta, zu sar zaite untzira gurekin afaitera eta deskantsatzera, hortxet deskantsatzera salaren ikustera.	.../... .../... .../... .../... .../...	XI	Andre gazte xarmanta, hori ezin egina hiru ehun lekutan juanak gira aitzina, ene meneko zira orain duzu orena.	.../... .../... .../... .../... .../...
II	Brodatzea utzirik gan nintzen amagana hean jaliko nintzen gibelesko leihora, gibelesko leihora itsasoko aldera.	.../... .../... .../... .../... .../...	VII	Andre gazte xarmanta igaiten da untzira, han emaiten diote lo belarra papora eta unzi handian lo dago gaixo haurra.	.../... .../... .../... .../... .../...	XII	Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera, aldiz haren arima hegaldaka zerura.	.../... .../... .../... .../... .../...
III	Bai, habil, haurra, habil erron kapitainari jin dadin afaitera hemen deskantsatzera, hemen deskantsatzera salaren ikustera.	.../... .../... .../... .../... .../...	VIII	Jaun kapitaina, nora deramazu zuk haurra? Zaluxko itzulazu hartu duzun lekura, hartu duzun lekura aita-amen gortera.	.../... .../... .../... .../... .../...	XIII	Nere kapitain jauna, hauxe duzu malurra. Nere marinel ona, norat aurtiki haurra? Norat aurtiki haurra? Hortxet itsas zolara.	.../... .../... .../... .../... .../...
IV	Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana jin zaiten afaitera hantxet deskantsatzera, hantxet deskantsatzera salaren ikustera.	.../... .../... .../... .../... .../...	IX	Nere marinel ona, heda zak heda bela beti nahi nuena jina zaitak aldera, ez duk hain usu jiten zoriona eskura.	.../... .../... .../... .../... .../...	XIV	Hiru ehun lekutan dago itsas leihorra. Oi Ama anderea, so egizu leihora, zur'alaba gaixoa uhinak derabila.	.../... .../... .../... .../... .../...
V	Andre gazte xarmanta, hoi ezin ditekera ipar haizea dugu gan behar dut aitzina, ezin ilkia baitut hauxe da ene pena.	.../... .../... .../... .../... .../... .../...	X	Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna? Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura, hartu nauzun lekura aita-amen gortera.	.../... .../... .../... .../... .../... .../...			

**Errima.** Baladaren eskema metrika antzeman behar duzu. Jar itzazu letra xeheak (**a**, **b**, **c**...) errima egiten duten lerroen bukaeretan. Dena dela, kontuan izan ez duela errima aberatsa, alegia, ez dute letra askok osatzen errima.

 **BALIABIDEAK**

Hurrengo zerrendan erromantzeak ukan ditzaketen ezaugarri batzuk dituzu. Neska ontziratuaren baladan azaltzen al dira? Bi oker daude.

Bai Ez

1. **Elkarrizketaren erabilera berezia**, ekintzari giro dramatikoa emanez. ....
2. **Mezua bertsoen azken lerroan** egotea. ....
3. **Estilizazioa**: ulermenerako juxtu-juxtuko datuak ematea. Tokia zein denbora ez dira zehazten. Kontatzailea nor edo zein den ere ez da zehazten. ....
4. **Errepikak**: hitzen edo lerroen errepikatzeak. ....
5. **Paralelismoak**: hitzak barik, egitura sintaktikoak (morfosintaxi mailakoak) errepikatzen dira. ....
6. **Joera lirikoa**: sentimenduen adierazpen nabarmena. ....
7. **Joera epikoa**: zenbait gertakariaren kontaketa egiten da. ....
8. **Deskribapen zehatz-zehatzak**. ....

Beraz, **sei** ezaugarriekin geratu gara. Orain, ikus dezagun zelan gauzatzen diren ezaugarriok testuaren pasarte jakinetan. Horretarako, jarri adibide bana ezaugarrien ondoan:

Elkarrizketaren erabilera berezia

«..... / .....  
..... / .....

Estilizazioa

«.....  
.....

Errepikak

«.....  
.....

Paralelismoak

«.....  
.....

Joera lirikoa

«..... (Zein sentimendu?)  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Joera epikoa

«.....  
.....

Jarraian, beste erromantze bat dakargu, hau Bizkai aldean bildua. Ezer baino lehen, kanta ezazu eta, albo-ko hiztegitxoaren laguntzaz, saia zaitetz, oraingoz gaingiroki bada ere, baladaren nondik-norakoak antzematen.

## Isabelatxu

**esana:** agindua  
**atian:** kanpoan  
**dauen:** dagoen  
**dila:** dadila  
**deizule:** dezazula

**linde damatxu:**  
damatxo ederra  
**neude:** naute

**bozu:** baduzu  
**erdu:** zatoz  
**bordera:** ontzi  
barrura

**neukie:** naukate  
**ondo estimadurik:** estima handian  
**ata' bazuen ze:** atera eta berehala  
**koiu zioen:** hartu zuen  
**da:** eta  
**eroen:** eraman  
**neuntsen:** nion  
**daroia:** darama

**Halan da bere:** hala ere  
**itxartu:** esnatu

- |   |   |
|---|---|
| <p>I <i>J</i>sabelatxu, <i>J</i>sabelatxu,<br/>arren, esan bat eidazu:<br/>atian dauen kantore horri<br/>etor dila esaiozu.</p>               | <p>VIII <i>E</i>roan naizue, eroan naizue<br/>aiten d'amaren herrire.<br/>Aiten d'amaren herrire joaten<br/>bostehun legoa behar dire.</p>  |
| <p>II <i>E</i>gun on asko euki deizule,<br/>untziko maisu gaztia.<br/>Halango asko ekar deizule,<br/>linde damatxu gaztia.</p>                | <p>IX <i>U</i>ntziko maisu gaztia,<br/>badozu kainabetia?<br/><i>E</i>z deukat kainabetarik baina<br/>emongo deusut saflia.</p>   |
| <p>III <i>A</i>itek eta amak bialtzen neude<br/>hau kantatxu hau ikastera.<br/>Hau kantatxu hau ikis nahi bozu<br/>erdu neurekin bordera.</p> | <p>X <i>E</i>mon zioten saflia eta<br/>sartu zeuen bihotzian:<br/>ordu hatantxe hilotzitu zen<br/>linde damatxu gaztia.</p>   |
| <p>IV <i>E</i>skerrik asko mile biderrez<br/>ez dot holango usterik,<br/>aitek eta amak etxian neukie<br/>neu ondo estimadurik.</p>           | <p>XI <i>E</i>ne mutilak, lagunek onak,<br/>zer eingo 'tsegu honeri?<br/><i>I</i>ntzentsoagaz intzentsatute<br/>ereinetzagaz lurrundu.<br/>Linde damia zazpi astian<br/>geurekin erabil daigun.</p> |
| <p>V <i>B</i>erba hau ahotik ata' bazuan ze<br/>koiu zioen kapapian,<br/>koiu zioen kapapian da<br/>eroen zuen bordera.</p>                   | <p>XII <i>E</i>ne mutilak, lagunek onak,<br/>zer eingo 'tsegu honeri?<br/><i>E</i>mon deiogun zazpine mosu<br/>bota deiogun ureri.<br/><i>E</i>mon zioten zazpine mosu<br/>bota zioten ureri.</p>   |
| <p>VI <i>L</i>obedartxu bet ipini neuntsen<br/>bular biaren erdian.<br/>Linde damia loak daroia<br/>bostehun legoa bidian.</p>                |   |
| <p>VII <i>H</i>alan da bere subertia zan<br/>untziek alkar jotia<br/>ordu hatantxe itxartu zala<br/>linde damatxu gaztia.</p>                 |   |

**d'amaren:** eta  
amaren

**kainabetia:**  
ganibeta, aiztoa  
**safli:** sablea

**hilotzitu:** gorpu  
geratu

**eingo 'tsegu:**  
egingo diogu  
**Intzentsua:** eliz-  
kizunetako gai  
usaintsua  
**ereinetza:** erra-  
mua

**deiogun:** die-  
zaiogun



## IRUDIAK ETA HITZAK

Bilatu eta itsatsi bertso bakoitzari dagokion irudia (89. orrialdea) eta osatu falta diren lerroak.

Isabelatxu



I Isabelatxu, Isabelatxu,  
arren bat eidazu:  
atian dauen kantore horri



II Egun on asko euki deizule,  
.....  
Halango asko ekar deizule  
linde damatxu gaztia.



III Aitek eta amak bialtzen neude  
bau kantatxu bau ikastera.  
Hau kantatxu bau ikis nabi bozu



IV Eskerrik asko mile biderrez  
ez dot holango usterik,  
aitek eta amak etxian neukie



V Berba hau abotik ata' bazuan ze  
.....  
koiu zioen kapapian da  
eroen zuen bordera.



VI Lobedartxu bet ipini neuntsen  
bular biaren erdian.  
Linde damia loak daroia



VII Halan da bere subertia zan  
.....  
ordu hatantxe itxartu zala  
linde damatxu gaztia.



**VIII** *Eroan naizue, eroan naizue  
aiten d'amaren herrire.  
Aiten d'amaren herrire joaten*



**IX** *.....  
badozu kainabetia?  
Ez deukat kainabetarik baina  
emongo deutsut saflia.*



**X** *Emon zioten saflia eta  
.....  
ordu batantxe bilotzitu zen  
linde damatxu gaztia.*



**XI** *Ene mutilak, lagunek onak,  
zer eingo tsegu honeri?  
Intzentsoagaz intzentsatute  
ereinozagaz lurrundu.  
Linde damia zazpi astian*



**XII** *Ene mutilak, lagunek onak,  
zer eingo tsegu honeri?  
Emon deiogun zazpine mosu  
.....  
Emon zioten zazpine mosu  
bota zioten ureri.*

Amaia

## ULERMENA ETA LANKETA

### Ulermena

Irakurri hurrengo baieztapenak eta markatu erantzuna: egia / faltsua.

E F

1. Isabelatxuk ahots ezta zuen eta bere kantuak kapitaina erakarri zuen. ....
2. Neskaxa nola edo hala bahitu egin zuten. ....
3. Itsasontzian intsentsua eskaini zioten neskaxari. ....
4. Ontzi istripu baten ondorioz, neskaxa bere senera etorri zen. ....
5. Marinel batek hil zuen neskaxa, kapitainaren aginduz. ....
6. Neskaxak armaren bat eskatu zien bere burua defenditzeko. ....
7. Neskaxa hil ondoren, kapitainak ez zekien zer egin haren gorpuarekin. ....

### Gaia

Zein da *Isabelatxu* erromantzearen **gaia**? Egizu zeure aukera hurrengo proposamenen artean:

- Elkarrekin maitemintzea       Itsas abenturak       Amodiozko hilketa
- Itsas gizonak       Sexuzko bahiketa       Ustekabeko heriotza

Honezkero ohartuko zinen erromantze honek hainbat elementu oso antzekoak dituela *Neska ontziratua*-rekin alderatuz gero. Bada, jarraian bien arteko erkaketa bat egingo dugu, baina lehenik gehiago sakonduko dugu bigarren aldaki honetan, *Isabelatxu*-n alegia.

### Argumentua

Hona *Isabelatxu*-ren argumenturako puntu batzuk. Ordenatu zenbaki bidez.

- ... Egoeraz jabeturik, neskatilak bere burua hil du.
- ... Neskatilak gonbiteari uko egitean, kapitainak harrapatu eta ontzira sartu du.
- ... Amak eskatuta, neskatila bat ontzi kapitain batengana joan da etxera gonbidatzera.
- ... Itzartu denean neskatilak etxera itzul dezatela erregutu die marinelei.
- ... Kapitainak aitzakia batekin neskatila ontzira gonbidatu du.
- ... Marinelek, luze eztabaidatuta, neskatilaren gorpua itsasora botatzea erabaki dute.
- ... Neskatila lo jarri dute eta itsas zabalera abiatu dira.

Zerrenda horretatik abiatuz, idatz ezazu argumentua. Zaindu kohesioa, ideiak egokiro lotuaz.

Argumentua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### Espresaerak

Biribil gorrixketan: jarri ahapaldien parean **N**, **E** edo **D** letrak (**n**arrazioa, **e**lkarriketa edo **d**eskribapena).

Biribil beltzetan: **n**arrazioa markatu duzun ahapaldietan bereizi **1**. edo **3**. pertsonako narratzailea den.

Hegaletako laukietan: ahapaldian **e**lkarriketa baldin bada zehaztu nor den hitz egiten duena (*Isabelatxu*, untziko maisua, ama edo marinela).

# Isabelatxu

Ama

- I Jsabelatxu, Jsabelatxu,  
 arren, esan bat eidazu:  
 atian dauen kantore horri  
 etor dila esaiozu.
- II Egun on asko euki deizule,  
 untziko maisu gaztia.  
 Halango asko ekar deizule,  
 linde damatxu gaztia.
- III Aitek eta amak bialtzen neude  
 hau kantatxu hau ikastera.  
 Hlau kantatxu hau ikis nahi bozu  
 erdu neurekin bordera.
- IV Eskerririk asko mile biderrez  
 ez dot holango usterik,  
 aitek eta amak etxian neukie  
 neu ondo estimadurik.
- V Berba hau dhotik ata' bazuan ze  
 koiu zioen kapapian,  
 koiu zioen kapapian da  
 eroen zuen bordera.
- VI Lobedartxu bet ipini neuntsen  
 bular biaren erdian.  
 Linde damia loak daroia  
 bostehun legoa bidian.

- VII Halan da bere subertia zan  
 untziek alkar jotia  
 ordu hatantxe itxartu zala  
 linde damatxu gaztia.
- VIII Eroan naizue, eroan naizue  
 aiten d'amaren herrire.  
 Aiten d'amaren herrire joaten  
 bostehun legoa behar dire.
- IX Untziko maisu gaztia,  
 badozu kainabetia?  
 Ez deukat kainabetarik baina  
 emongo deusut saflia.
- X Emon zioten saflia eta  
 sartu zeuen bihotzian:  
 ordu hatantxe hilotzitu zen  
 linde damatxu gaztia.
- XI Ene mutilak, lagunek onak,  
 zer ingo 'tsegu honeri?  
 Jntzentsoagaz intzentsatute  
 ereinotzagaz lurrundu.  
 Linde damia zazpi astian  
 geurekin erabil daigun.
- XII Ene mutilak, lagunek onak,  
 zer ingo 'tsegu honeri?  
 Emon deiogun zazpine mosu  
 bota deiogun ureri.  
 Emon zioten zazpine mosu  
 bota zioten ureri.

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Zein berezitasun ditu *Isabelatxu*-k *Neska ontziratuarena*-ren aldean? Antzekotasunak eta desberdintasunak.

**Espresaerak** .....

.....

.....

**Pertsonaiak** .....

.....

**Bestelakoak** .....

.....

.....

.....

.....



**Euskalkia**

Erkatzen ari garen bi baladak herri euskararen sortu dira eta, ondorioz, euskalkietan emanak dira. Lehena, *Neska ontziratuarena*, lapurteraz dago, hau da, Lapurdi aldeko euskara motan; *Isabelatxu*-k, ostera, Bizkai aldean baturik dagoenez gero, bizkaiera du euskalki.

Ondoren, saia zaituz bizkaieraren zenbait hitz eta esapide euskara batuko moldean ipintzen:

<i>Bizkaieraz</i>	<i>Batuan</i>	<i>Bizkaieraz</i>	<i>Batuan</i>
1. Esan bat eidazu: .....		9. Halan da bere: .....	
2. Atian dauen: .....		10. Alkar jotia: .....	
3. Euki deizule: .....		11. Eroan naizue: .....	
4. Bialtzen naude: .....		12. Emongo deutsut: .....	
5. Ikis nahi bozu: .....		13. Egingo deutsegu: .....	
6. Etxian neukie: .....		14. Intzentsoagaz: .....	
7. Ipini neuntsen: .....		15. Erabil daigun: .....	
8. Loak daroia: .....		16. Emon deiogun: .....	

**Moldea: neurria eta errima**

Atera ezazu *Isabelatxu* erromantzearen eskema metrikoa. Irregularitasunik balego, adieraz ezazu.

I <i>Jsabelatxu, Jsabelatxu,</i> .../... <i>arren, esan bat eidazu:</i> .../... <i>atian dauen kantore horri</i> .../... <i>etor dila esaiozu.</i> .../...	VI <i>Lobedartxu bet ipini neuntsen</i> .../... <i>bular biaren erdian.</i> .../... <i>Linde damia loak daroia</i> .../... <i>bostehun legoa bidian.</i> .../...	XI <i>Ene mutilak, lagunek onak,</i> .../... <i>zer eingo 'tsegu honeri?</i> .../... <i>Intzentsoagaz intzentsatute</i> .../... <i>ereinotzagaz lurrundu.</i> .../... <i>Linde damia zazpi astian</i> .../... <i>geurekin erabil daigun.</i> .../...
II <i>Egun on asko euki deizule,</i> .../... <i>untziko maisu gaztia.</i> .../... <i>Halango asko ekar deizule,</i> .../... <i>linde damatxu gaztia.</i> .../...	VII <i>Halan da bere subertia zan</i> .../... <i>untziek alkar jotia</i> .../... <i>ordu hatantxe itxartu zala</i> .../... <i>linde damatxu gaztia.</i> .../...	XII <i>Ene mutilak, lagunek onak,</i> .../... <i>zer eingo 'tsegu honeri?</i> .../... <i>Emon deiogun zappine mosu</i> .../... <i>bota deiogun ureri.</i> .../... <i>Emon zioten zappine mosu</i> .../... <i>bota zioten ureri.</i> .../...
III <i>Aitek eta amak bialtzen neude</i> .../... <i>hau kantatxu hau ikastera.</i> .../... <i>Hau kantatxu hau ikis nahi bozu</i> .../... <i>erdu neurekin bordera.</i> .../...	VIII <i>Eroan naizue, eroan naizue</i> .../... <i>aiten d'amaren herrire.</i> .../... <i>Aiten d'amaren herrire joaten</i> .../... <i>bostehun legoa behar dire.</i> .../...	
IV <i>Eskerrik asko mile biderrez</i> .../... <i>ez dot holango usterik,</i> .../... <i>aitek eta amak etxian neukie</i> .../... <i>neu ondo estimadurik.</i> .../...	IX <i>Untziko maisu gaztia,</i> .../... <i>badozu kainabetia?</i> .../... <i>Ez deukat kainabetarik baina</i> .../... <i>emongo deutsut saflia.</i> .../...	Irregularitasunak: ..... ..... .....
V <i>Berba hau ahotik ata' bazuan ze</i> .../... <i>koiu zioen kapapian,</i> .../... <i>koiu zioen kapapian da</i> .../... <i>eroen zuen bordera.</i> .../...	X <i>Emon zioten saflia eta</i> .../... <i>sartu zeuen bihotzian:</i> .../... <i>ordu hatantxe hilotzitu zen</i> .../... <i>linde damatxu gaztia.</i> .../...	

## BALIABIDEAK

Horra *Isabelatxu* baladatik harturiko ataltxo batzuk. Zehaztu zer den bakoitza.

Elkarrizketaren  
erabilera  
berezia

Joera epikoa

Estilazazioa

Paralelismoa

Joera lirikoa

Errepika

1. ....

«Egun on asko euki deizule  
untziko maisu gaztia.  
Halango asko ekar deizule,  
linde damatxu gaztia.»

2. ....

«...koiu zioen kapapian  
koiu zioen kapapian da...»

3. ....

«Emon deiogun zazpine mosu  
bota deiogun ureri.  
Emon zioten zazpine mosu  
bota zioten ureri.»

4. ....

«Lobedartxu bat ipini neuntsen  
bular biaren erdian.  
Linde damia loak daroia  
bostehun legoa bidian.»

5. ....

«Ene mutilak, lagunek onak,  
zer eingo 'tsegu honeri?»

6. ....

«Emon zioten saflia eta  
sartu zeuen bihotzian:  
ordu hatantxe hilotzitu zen  
linde damatxu gaztia.»

Hurrengo orrialdeetan balada sortatxo bat duzu. Horietan, dagoeneko landu dugun zenbait ezaugarri agertuko zaizu, eta berri batzuk ere bai. Dena den, erromantze bakoitzaren lanketari ekin aurretik, kanta ezazu. Hona lehenengoa.

## ALDEZ AURRETIK

### Leixibatxoa

Lehen erromantze honek istorio xelebrea kontatzen du.

Nonbait, Ameriketan luzaroan izan den senarra etxera itzuli da. Aspaldian emaztearen berri jakin gabe egon dela, beronen jokabidea proban jartzeko honakoa asmatu du: fraide jantzita hurbildu emazteari, honek ezagutuko ez duelakotan; elkarrizketa bitxia sortuko da errekaaren bazter batetik bestera.



(Itsatsi 91. orrialdeko irudia)

## Leixibatxo

**Leixibatxo:**  
garbitzeko arropa

**b'ozu:** badozu

**Ezeutuko:**  
ezagutuko

.....

**deutsut:** dizut  
**dau:** dago

**pasauk'ot:**  
pasatuko dut

**Ez jat komenidetan:**  
Ez zait komeni

**ilenti:** ikatz gorria

**erreko ahal zaitu:**  
erre zaitzala  
(desioa)

<p>I —Leixibatxo zuria dozu, .../... andratxu gaztia. .../... —Ondo gobernatuta, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>II —Eskutxu zuriak dozuz, .../... andratxu gaztia. .../... —Quantepian ibilite, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>III —Familiarik edo b'ozu, .../... andratxu gaztia? .../... —Seme bi ditudaz, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>IV —Senarrrik edo b'ozu .../... andratxu gaztia? .../... —Amerike urrunetan, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>V —Ezeutuko zenduke, .../... andratxu gaztia? .../... —Lehengo arropakin bada, .../... bai aita frailia. .../...</p>	<p>VI —Laztan bat emon behar deutsut, .../... andratxu gaztia. .../... —Jbaia dau bitarte, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>VII —Bi saltuan pasatuk'ot, .../... andratxu gaztia. .../... —Ez jat komenidetan, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>VIII —Suak erreko ahal zaitu, .../... andratxu gaztia! .../... —Berori ilenti dala, .../... bai aita frailia. .../...</p> <p>IX —Urek eroango ahal zaitu, .../... andratxu gaztia! .../... —Berori txalupa dala, .../... bai aita frailia. .../...</p>
--	---

## ☀ ULERMENA ETA LANKETA

### 🌀 Ulermena

Irakurri hurrengo baieztapenak eta markatu erantzuna: egia / faltsua.

E F

- |  |                       |                       |
|--|-----------------------|-----------------------|
| 1. Emakumeak bi seme dituela esan dio fraideari. ....                            | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 2. Fraidea emakumearen senarraren partez dator. ....                             | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 3. Emakumea laster konturatu da fraidea bere senarra dena. ....                  | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 4. Gizona haserretu egin da emazteak igarri diola konturatzean. ....             | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 5. Emakumeak txalupa eskaini dio fraideari errekaaren bestaldera pasatzeko. .... | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 6. Elkarrizketa errekaaren hegala batetik bestera egiten da. ....                | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 7. Emakumeak ironiaz erantzuten dio gizonari. ....                               | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 8. Fraidea egiatan emakumearen senarra da, mozorroturik. ....                    | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

### 🌀 Moldea: neurria eta errima

Bete itzazu lerro bakoitzaren ondoko markatxoetan moldeari dagozkion datuak.

 **Iritzia**

Erromantzean zehar halako tentsio bat nabari da pertsonaien artean. Azal ezazu.

Hurrengo galderak lagungarri izan dakizkizuke. Zerk eragiten du tentsio hori? Zein da eztabaida gaia? Zein esalditan da oso nabarmena? Nor nagusitzen da "eztabaida" horretan? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

 **BALIABIDEAK**

Aztertu hurrengo baliabideak eta erantzun galderak.

1. «bai aita frailia ...  
bai aita frailia»

Zein baliabide da?  
 Errepikapena     Paralelismoa  
 Zer efektu lortzeko?  
 .....

**Paralelismoa**  
 Egitura sintaktikoen errepikapena

2. «—Senarrik edo b'ozu  
andratxu gaztia?  
—Seme bi ditudaz  
bai aita frailia.»

Zein baliabide da?  
 Errepikapena     Paralelismoa  
 Zer efektu lortzeko?  
 .....

**Estilizazioa**  
 Ulermenerako datu gutxi batzuk baino ez.

3. «Suak erreko ahal zaitu ...  
Urek eroango ahal zaitu»

Zein baliabide da?  
 Errepikapena     Paralelismoa  
 Zer efektu lortzeko?  
 .....

**Errepika**  
 Hitzen edo lerroen errepikapena.

4. «Berori ilenti dala ...  
Berori txalupa dala ...»

Zein baliabide da?  
 Errepikapena     Paralelismoa  
 Zer efektu lortzeko?  
 .....

**Joera lirikoa**  
 Sentimenduen adierazpen nabarmena.

**Joera epikoa**  
 Gertakari batzuk kontatzea.

## ALDEZ AURRETIK

Erdi Aroan kokatu behar da balada hau, Ahaide Nagusien, alegia, jauntxoen arteko borroketan. Liskar odoltsu haiek alderdi edo leinu bateko zein besteko heriotze, mendeku eta sarraski ugariz odoleztatu zuten Euskal Herria. Honako honek Beaumont konteak Bereterretxe azpikeriaz hil zueneko kontakatu du.

Pertsonaiak: Bereterretxe gaztea, Margarita neskalaguna, Marisantz (Bereterretxeren ama), Kontea eta Buztanobi (Marisantzaren neba).

### Bereterretxeren kantoria

**erraiten ziela:**  
esaten zutela  
**aitunen semek:**  
nobleek

**so egin ezan:**  
begira ezan  
**denez ageri:**  
ageri den  
**berhala:** berehala

**borta:** ate

**bazereitzola:**  
segitzen ziotela

**aigu bortala:** hator  
atera  
**itzuliren hiz:**  
itzuliko haiz  
**indazut:** emadazu  
**menturaz sekulakoa:** agian betierekoa, azkena  
**oroit ukenen du:**  
gogoratuko du  
**gaiardi:** gauardi  
**buneta:** kapela

**esteki:** lotu  
**zeitan idoki:**  
zitzaidan atera

I Haltzak ez du bihotzik  
ez gaztanberak hezurrik.  
Ez nian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik.

II Andozeko ibarra  
ala zer ibar luzial!  
Hiruretan ebaki zaitan  
armarik gabe bihotza.

III Bereterretxek oheti  
neskatuari ezteki:  
habil eta so egin ezan  
gizonik denez ageri.

IV Neskatuak berhala  
ikusit zian bezala,  
hirur dozena bazabiltzala  
borta batetik bestera.

V Bereterretxek leihoti  
Jaun Kuntiar goraintzi:  
ehun behi bazereitzola  
beren zezena ondoti.

VI Jaun Kuntiak berhala  
traidore batek bezala:  
Bereterretxe, aigu bortala  
itzuliren hiz berhala.

VII Ama indazut atorra  
menturaz sekulakoa.  
Bizi denak oroit ukenen du  
Bazko-gaiardi ondua.

VIII Heltu nintzan Ligira  
buneta erori lurrera,  
buneta erori lurrera eta  
eskurik ezin behera.

IX Heltu nintzan Ezpeldoira  
han haritx bati esteki,  
han haritx bati esteki eta  
bizia zeitan idoki.

X Marisantzaren lasterra  
Bost mendietan behera.  
Bi belaunez herrestan sartu da  
Lakarri-Buztanobira.

XI Buztanobi gaztia,  
ene anaie maitia,  
hitzaz unik ez balin bada  
ene semia juan da.

XII Arreba, hago ixilik  
ez, otoi, egin nigarririk.  
Hire semia bizi bada  
Mauliala dun juanik.

XIII Marisantzaren lasterra  
Jaun Kuntiararen bortala:  
Ai, ei, eta jauna, nun duzie  
ene seme galanta?

XIV Hik bahiena semerik  
Bereterretxek besterik?  
Ezpeldo altian dun hilik.  
Habil, eraikan bizirik.

XV Ezpeldoiko jentiak,  
ala sendimentu gabiak!  
Hila hain hullan uken eta  
deus ere ez zakienak!

XVI Ezpeldoiko alaba  
Margarita deitzen da.  
Bereterretxek odolirik  
ahurka biltzen ari da.

XVII Ezpeldoiko bukata,  
ala bukata ederra!  
Bereterretxek atorretarik  
hirur dozena umen da.

**herrestan:** narras

**unik:** onik, berririk

**Mauliala:** Maulera

**bahiena:** ba ote  
huen  
**altian:** aldean  
**eraikan:** jaikiarazi

**hullan:** hurbil  
**zakienak:**  
zekitenak

**ahurka:** esku  
beteka

**bukata:** lixiba,  
garbitzeko arropa

## IRUDIAK ETA HITZAK

Itsatsi bertso bakoitzari dagokion irudia (91. orrialdea) eta osatu falta diren lerroak.

### Bereterretxeren kantoria



III Bereterretxek obeti

.....  
 habil eta so egin ezan  
 gizonik denez ageri.



VI Jaun Kuntiak berbala  
 traidore batek bezala:  
 Bereterretxe, aigu bortala



VIII Heltu nintzan Ligira

.....  
 buneta erori lurrera eta  
 eskurik ezin behera.



IX Heltu nintzan Ezpeldoirra  
 han haritx bati esteki,  
 han haritx bati esteki eta



XII .....  
 ez, otoi, egin nigarririk.  
 Hire semia bizi bada  
 Mauliala dun juanik.



XIV .....  
 Bereterretxez besterik?  
 Ezpeldoi altian dun bilik.  
 Habil, eraikan bizirik.



XVI Ezpeldoiko alaba  
 Margarita deitzen da.  
 .....  
 aburka biltzen ari da.

### Amaia

## ULERMENA ETA LANKETA

### Sinonimoak

Bilatu ondoko biribilean hitz hauen sinonimoak edo ordainak.

Haltza	.....
Gaztanbera	.....
Ibarra	.....
Ebaki	.....
Goraintzi	.....
Atorra	.....
Otoi	.....
Ahurka	.....
Bukata	.....
Lasterra	.....



### Ulermena

Irakurri hurrengo baieztapenak eta markatu erantzuna: egia / faltsua.

**E** **F**

- |  |                       |                       |
|--|-----------------------|-----------------------|
| 1. Hilketa bi gertatu dira. ....   | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 2. Bereterretzek bere jauregian Jaun Kontearen bisita izan du. ....            | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 3. Haritz bati loturik zutela kendu zioten bizitza Bereterretxeri. ....        | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 4. Marisantz, Bereterretxeren ama, bere seme desagertuaren bila dabil. ....    | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 5. Jaun Kontea ehun behirekin hurbildu da gaztelura. ....                      | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 6. Ezpeldoiko jendeak Marisantzi beronen semearen berri eman dio. ....         | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 7. Baladaren bukaeran halako mendeku bat barrunta daiteke. ....                | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |
| 8. Bereterretzek susmatu du hiltzera doala eta hala jakinarazi dio amari. .... | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

### Gaia

Kontaera ulertutakoan, saia gaitezen **gaia** zehazten, hau da, zertaz ari den, oro har, testua. Egizu zeure aukera hurrengo proposamenen artean:

- |  |   |   |
|--|---|---|
| <input type="radio"/> Semearenganako maitasuna | <input type="radio"/> Dirua lortzeko bahiketa | <input type="radio"/> Amodiozko hilketa |
| <input type="radio"/> Azpikeriazko hilketa     | <input type="radio"/> Desafioa edo erronka    | <input type="radio"/> Maitemintzea      |

Arrazoitu ezazu egin duzun hautapena.

Azalpena

  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

## Espresaerak

Biribil gorrixketan: jarri ahapaldien parean **N**, **E** edo **D** letrak (**n**arrazioa, **e**lkarrizketa edo **d**eskribapena).

Biribil beltzetan: **n**arrazioa markatu duzun ahapaldietan bereizi **1**. edo **3**. pertsonako narratzailea den.

Hegaletako laukietan: ahapaldian **e**lkarrizketa baldin bada zehaztu nor den hitz egiten duena (Bereterretxe, Margarita, Marisantz, Kontea edo Buztanobi).

### Bereterretxeren kantoria

- |      |  |      |  |
|------|--|------|--|
| I    | Haltzak ez du bihotzik<br>ez gaztanberak hezurrik.<br><input checked="" type="radio"/> <b>N</b><br><input checked="" type="radio"/> <b>1</b>                                       | X    | Marisantzen lasterra<br>Bost mendietan behera.<br><input type="radio"/>  |
|      | Ez nian uste erraiten ziela<br>aitunen semek gezurrik.   |      | Bi belaunez herrestan sartu da<br>Lakarri-Buztanobira.   |
| II   | Andozeko ibarra<br><input type="radio"/> ala zer ibar luzia!<br><input type="radio"/> Hirurretan ebaki zaitan<br><input type="radio"/> armarik gabe bihotza.                       | XI   | Buztanobi gaztia,<br><input type="radio"/> ene anaie maitia,<br><input type="radio"/> hitzaz unik ez balin bada<br><input type="radio"/> ene semia juan da.                        |
| III  | Bereterretxek oheti<br><input checked="" type="radio"/> neskatuari eztiki:<br><input type="radio"/> habil eta so egin ezan<br><input type="radio"/> gizonik denez ageri.           | XII  | Arreba, hago ixilik<br><input type="radio"/> ez, otoi, egin nigarrrik.<br><input type="radio"/> Hire semia bizi bada<br><input type="radio"/> Mauliala dun juanik.                 |
| IV   | Neskatuak berhala<br><input type="radio"/> ikusi zian bezala,<br><input type="radio"/> hirur dozena bazabiltzala<br><input type="radio"/> borta batetik bestera.                   | XIII | Marisantzen lasterra<br><input checked="" type="radio"/> Jaun Kuntiarene bortala:<br><input type="radio"/> Ai, ei, eta jauna, nun duzie<br><input type="radio"/> ene seme galanta? |
| V    | Bereterretxek leihoti<br><input type="radio"/> Jaun Kuntia goraintzi,<br><input type="radio"/> ehun behi bazereitzola<br><input type="radio"/> beren zezena ondoti.                | XIV  | Hik bahiena semerik<br><input type="radio"/> Bereterretxez besterik?<br><input type="radio"/> Ezpeldo altian dun hilik.<br><input type="radio"/> Habil, eraikan bizirik.           |
| VI   | Jaun Kuntia berhala<br><input checked="" type="radio"/> traidore batek bezala:<br><input type="radio"/> Bereterretxe, aigu bortala<br><input type="radio"/> itzuliren hiz berhala. | XV   | Ezpeldoiko jentia,<br><input type="radio"/> ala sendimentu gabiak!<br><input type="radio"/> Hila hain hullan uken eta<br><input type="radio"/> deus ere ez zakienak!               |
| VII  | Ama indazut atorra<br><input type="radio"/> menturaz sekulakoa.<br><input type="radio"/> Bizi denak oroit ukenen du<br><input type="radio"/> Bazko-gaiardi ondua.                  | XVI  | Ezpeldoiko alaba<br><input type="radio"/> Margarita deitzen da.<br><input type="radio"/> Bereterretxen odolietik<br><input type="radio"/> ahurka biltzen ari da.                   |
| VIII | Heltu nintzan Ligira<br><input type="radio"/> buneta erori lurrera,<br><input type="radio"/> buneta erori lurrera eta<br><input type="radio"/> eskurik ezin behera.                | XVII | Ezpeldoiko bukata,<br><input type="radio"/> ala bukata ederra!<br><input type="radio"/> Bereterretxen atorretarik<br><input type="radio"/> hirur dozena umen da.                   |
| IX   | Heltu nintzan Ezpeldoira<br><input type="radio"/> han haritx bati esteki,<br><input type="radio"/> han haritx bati esteki eta<br><input type="radio"/> bizia zeitan idoki.         |      |  |



### Argumentua

Ondoren, zenbait gertakari duzu *Bereterretxeren kantoria* erromantzearen argumentua ardaztu ahal izateko. Alabaina, ordenatu barik dituzu eta, gainera, hiru ezesteko modukoak dira.

- Neskato batek bisitaren berri eman dio.
- Zuhaitz bati lotua galdu zuen bizia.
- Haren ama, etsipenez, semearen bila dabil, drama barruntatuaz.
- Gau batean, Bereterretxeren egoitzaren aurrean Jaun Kontea azaldu da hainbat gizonekin.
- Haltzaren gerizpean kantari bat gogoetatsu.
- Bakezale datorrela-eta beldur gabe ateratzeko esan dio Konteak.
- Bereterretxe Ezpeldoira eraman eta hil egin dute.
- Bereterretxe hila datzan lekuan bada, dagoeneko, haren odola mendekatuko duen norbait.
- Konteak ironiaz jakinarazi dio non utzi duen haren semea hilik.

Zerrenda horretatik abiatuz, idatz ezazu argumentua. Zaindu kohesioa, ideiak egokiro lotuaz.

**Argumentua**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

🌀 *Moldea: neurria eta errima*

Bete itzazu moldeari dagozkion datuak.

### Bereterretxeren Kantoria

1

I	Haltzak ez du bihotzik .../... ez gaztanberak hezurrik. .../... Ez nian uste erraiten ziela .../... aitunen semek gezurrik. .../...	X	Marisantzen lasterra .../... Bost mendietan behera. .../... Bi belanez herrestan sartu da .../... Lakarri-Buztanobira. .../...
II	Andozeko ibarra .../... ala zer ibar luzia! .../... Hiruretan ebaki zaitan .../... armarik gabe bihotza. .../...	XI	Buztanobi gaztia, .../... ene anaie maitia, .../... hitzaz unik ez balin bada .../... ene semia juan da. .../...
III	Bereterretxek oheti .../... neskatuari eztiki: .../... habil eta so egin ezan .../... gizonik denez ageri. .../...	XII	Arreba, hago ixilik .../... ez, otoi, egin nigarrik. .../... Hire semia bizi bada .../... Mauliala dun juanik. .../...
IV	Neskatuak berhala .../... ikusi zian bezala .../... hirur dozena bazabiltzala .../... borta batetik bestera. .../...	XIII	Marisantzen lasterra .../... Jaun Kuntiarene bortala. .../... Ai, ei, eta jauna, nun duzie ene seme galanta? .../...
V	Bereterretxek leihoti .../... Jaun Kuntiar goraintzi .../... ehun behi bazereitzola .../... beren zezena ondoti. .../...	XIV	Hik bahiena semerik .../... Bereterretxek besterik? .../... Ezpeldo altian dun hilik. .../... Habil, eraikan bizirik. .../...
VI	Jaun Kuntiak berhala .../... traidore batek bezala: .../... Bereterretxe, aigu bortala .../... itzuliren hiz berhala. .../...	XV	Ezpeldoiko jentiak, .../... ala sendimentu gabiak! .../... Hila hain hullan uken eta .../... deus ere ez zakienak! .../...
VII	Ama indazut atorra .../... menturaz sekulakoa. .../... Bizi denak oroit ukenen du .../... Bazko-gaiardi ondua. .../...	XVI	Ezpeldoiko alaba .../... Margarita deitzen da: .../... Bereterretxen odoletik .../... ahurka biltzen ari da. .../...
VIII	Heltu nintzan Ligira .../... buneta erori lurrera .../... buneta erori lurrera eta .../... eskurik ezin behera. .../...	XVII	Ezpeldoiko bukata, .../... ala bukata ederra! .../... Bereterretxen atorretarik .../... hirur dozena umen da. .../...
IX	Heltu nintzan Ezpeldaira .../... han haritx bati esteki .../... han haritx bati esteki eta .../... bizia zeitan idoki. .../...		

## BALIABIDEAK

### Etenak (Ahapaldien arteko leku-denbora aldaketak)

Erromantzeen harian sarri gertatzen dira ustekabeko saltoak edo etenak, denborazkoak eta espaziozkoak, aurrez iragartzen ez direnak. Hauek direla eta, entzulea zertxobait galdu-edo egin daiteke baina, beste alde bate-tik, baladan adierazten denaren interpretazioa egiteko aukera eskaintzen zaio. Beste batzuetan, ordea, eten hauen arrazoa desberdina izaten da: ahoz ahozko bilakaeran, ahapaldiren bat galdu egin daiteke edo ahaztu-rik geratu.

Bereterretxeren kantoria-n **bost** dira etenik behinenak. Aurreko orrialdean, markatu etenak eta saiatu inter-pretazio bat ematen.

- 1) II-III bitartean: *narratzaile orojakilearen zogoetatik Bereterretxeren sartelura*
- 2) .....
- 3) .....
- 4) .....
- 5) .....

### Ahapaldi barneko etenak

Lehen ahapaldian baliabide hau azaltzen da:

I Haltzak ez du bihotzik  
ez gaztanberak hezurrik.

← **ETENA**

Éz nian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik.

Ikusi batera, badirudi zati biak ez daudela loturik, gauza desberdinak adieraziko balituzte bezala.

Har ditzagun banan-banan:

A) Zer iradokitzen dizu lehen zatiak? Arrazoi ezazu zeure aukera:

- |                                    |   |                                   |
|------------------------------------|---|-----------------------------------|
| <input type="radio"/> Bigunkeria   | <input type="radio"/> Araztasuna, garbitasuna | <input type="radio"/> Gogortasuna |
| <input type="radio"/> Maltzurkeria | <input type="radio"/> Ausardia                |                                   |

**Arrazoa** .....

.....

B) Zer adierazten du bigarren zatiak Aitonon semeei buruz:

- Gogortasuna                       Zintzotasuna                       Faltsukeria  
 Esamesak                               Koldarkeria

**Arrazoia** .....

.....

Erkatu bi sailletako erantzunak eta esan zerk lotu ditzakeen biak, zer den itxurazko ilogikotasuna ezabatzen duena:

- Kontrastea                       Antzekotasuna                       Berdintasuna  
 Natura                               Bihotza

**Arrazoia** .....

.....

Ba al dago horrelako **etena** duen beste ahapaldiren bat? Bilatu eta aztertu aurrekoa bezalaxe:

II

.....

.....

←

.....

.....

**1. zatiaren esanahia**

.....

**ETENA**

**2. zatiaren mezua**

.....

Zein lotura izan liteke bien artean?

.....

.....

.....

### Paralelismoak

Egitura paralelo ugari ditu *Bereterretxe kantoreak*. Bil itzazu horrelako lau.

**Paralelismoa**  
Egitura sintaktikoen errepikapena.

- 1. «*Bereterretxek obeti / neskatoari ezteki* (III)  
*Bereterretxek leiboti / Jaun Kuntiarri goraintzi* (V)
- 2. «..... / .....  
..... / .....
- 3. «..... / .....  
..... / .....
- 4. «..... / .....  
..... / .....
- 5. «..... / .....  
..... / .....

### Estilizazioa eta interpretazioa

Estilizazioa hain nabarmena izanik, zail gertatzen da balada honen pasarte batzuen interpretazioa.

**Estilizazioa**  
Ulermenerako datu gutxi batzuk baino ez.

Ekar ditzagun berriz amaierako biak:

XVI <i>Ezpeldoiko alaba Margarita deitzen da: Bereterretxen odolarik ahurka biltzen ari da.</i>	XVII <i>Ezpeldoiko bukata, ala bukata ederra! Bereterretxen atorretarik hirur dozena umen da.</i>
---	---

Horietan bietan badira mendekua iradokitzen duten zantzuak. Bila itzazu **bi** ondoko zerrendan:

- Atorren kopurua: gazte ugari herrian.
- Bereterretxeren odolaren bilketa.
- Ezpeldoiko alabaren izena.
- Bukataren edertasuna.
- Alabaren eta bukataren arteko lotura.

Zuzen dauden biak hautatutakoan, eman ezazu interpretazio horren aldeko aukeraren azalpena.

**Azalpena**

.....

.....

.....

.....

## ALDEZ AURRETIK

Zuberoako balada honek Irigarai jaunaren eta honen emaztearen drama kantatzen digu. Irigarai, emazte-gaiaz gainera, bazuen maitale bat ezkondu aurretik; honek, zapuztuta, mendekua hartu zuen ezkontza egunean bertan senargaia hilez. Etsipenak hartuta, alarguntsak berekin zazpi urtez gorde omen zuen senar hilaren gorpua.

### Egun bereko alarguntsa

- |   |  |
|---|--|
| <p>I Goizian goizik jeiki ninduzun<br/>espusa nintzan goizian;<br/>bai eta zetaz ere beztitu<br/>ekia jelki zenian;<br/>etxek'andere zabal ninduzun<br/>eguerdi erdian;<br/>bai eta alarguntsa gazte<br/>ekia sartu zenian.</p> | <p>III Nik banizun maitetto bat<br/>mundu ororen ixilik,<br/>mundu ororen ixilik eta<br/>Jinko Jaunari ageririk;<br/>buket bat igorri ditadazut<br/>lili arraroz eginik,<br/>lili arraroz eginik eta<br/>erdia pozoaturik.</p> |
| <p>II Musde Irigarai, ene jauna,<br/>altxa izadazut buria;<br/>ala dolutu ote zaizu<br/>eneki espusatzia?<br/>Ez, ez, etzitadazu dolutu<br/>zureki espusatzia,<br/>ez eta ere doluturen<br/>bizi nizano lurrian.</p>            | <p>IV Zazpi urtez etxeki dizut<br/>gizona hilik kanberan,<br/>egunaz lur hotzian eta<br/>gaiaz bi besuen artian;<br/>zitru urez ukuzten nizun<br/>astian egun batian,<br/>astian egun batian eta<br/>ostirale goizian.</p>     |

Musde:  
Jaun

## ULERMENA

Bilatu biribilean ondokoan baliokideak.



1. Jeiki ninduzun:
2. Beztitu:
3. Ekia jelki:
4. Alarguntsa:
5. Altxa izadazut:
6. Dolutu:
7. Eneki espusatzia:
8. Bizi nizano:
9. Banizun:
10. Mundu ororen ixilik:
11. Ageririk:
12. Buket bat:
13. Igorri ditadazut:
14. Lili:
15. Pozoaturik:
16. Etxeki dizut:
17. Kanberan:
18. Gaiaz:
19. Zitru urez:
20. Ukuzten nizun:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

# IRUDIAK ETA HITZAK

Bilatu eta itsatsi bertso bakoitzarekiko irudia (93. orrialdea). Idatzi irudi bakoitzaren azpian dagokion erromantze zatia.


Egun bereko alarguntsa



Goizian goizik jeiki ninduzun

.....  
.....

.....  
.....



Musde Irigarai, ene jauna,

.....  
.....

.....  
.....

.....  
.....



buket bat igorri ditadazut

.....  
.....



Zazpi urtez etxeke dizut

.....  
.....

Amaia

## ALDEZ AURRETIK

Mutil jantzita soldadu sartu eta gerran ibili zen neska baten istorioa du ardatz balada honek. Euskalkiaren aldetik bizkaiera eta gipuzkera nahasian ageri dira.

### Neska soldadua

- |     |  |      |  |      |   |
|-----|--|------|--|------|---|
| I   | Gaztiak kantuan ta zaharrak eragusian hori da pasatzen dana bardin mundu guzian. | VI   | Regimentu bi izan ditut hamar urte honeitan Angel de Ondasetan Buenas Airesetan. | XI   | Moja sartzera noa komentu batera Jesusaren esosa betiko izatera.            |
| II  | Etzetik urten neban Mariatzeko hilian hamasei urterekin neure txoramenian.       | VII  | Nerau emakumia ofizialia, letrarik eskolarik batere gabia.                       | XII  | Hamar urtian errege zerbitu detalako dotia gertu daukat moja sartutzeko.    |
| III | Soldadu sartu nintzan Agorraren bostian kabo edo sargento izateko ustian.        | VIII | Agustin Antonio izan da neure izena. Hori aitu dezutenok ez da neure izena.      | XIII | Adios ama neuria, probintziania ongi lastimatzen naiz zu despeditzia.       |
| IV  | Ni lako fortuna nork du harrapatu? Hamaika hilabeteko sargento nonbratu.         | IX   | Oraintxe da denboria izena muratzeko Agustina Antonia naizela esateko.           | XIV  | Baina oraindik ere bizi naizen artian gogoan izango zaitut neure bihotzian. |
| V   | Urtebete baino lehen nintzan teniente regimentutikan be nintzala ausente.        | X    | Batetik lau balazo, bestetik enfermo, Jaunaren abixuak hoiek ditut klaro.        |      |   |

## ULERMENA

Bilatu biribilean ondoko hitzen baliokideak.



1. Eragusian:
2. Urten neban
3. Mariatzeko:
4. Txoramenian:
5. Agorraren:
6. Lako:
7. Fortunia:
8. Regimentutikan:
9. Be:
10. Honeitan:
11. Nerau:
12. Aitu:
13. Muratzeko:
14. Probintziania:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



## ALDEZ AURRETIK

Mariak, gaixoarena eginez, sarritan bidaltzen du senar Peru belar sendagarri bila nora eta Londresera. Bitartean, etxean jai eta dantza ugari egiten ditu emazteak, auzokoak ere etorrazazita. Morroiak, baina, jakinaren gainean jarri du Peru.

### Peru gurea

- |  |   |
|--|---|
| <p>I Londresen dot neuk senarra zirin bedarrak ekarten. Bera handik dan artean gu hemen dantza gaitezen. Oi, hau egia! Daigun jira bi Maria.</p> | <p>IV Neuk ugazaba nekusan Jzurdiako zubian. Hori zestorik urten artean gu hemen dantza gaitezan. Oi, hau egia! Daigun jira bi Maria.</p> |
| <p>II Kapoiak dagoz erreten oilaskotxuak mutiltzen horrek ondo erre artean gu hemen dantza gaitezen. Oi, hau egia! Daigun jira bi Maria.</p>     | <p>V Neure mutiltxu txoria, hik esan heustan egia: gaur gabeen dantzauko zala nire emazte Maria. Oi, hau egia! Hiretzat mando zuria.</p>  |
| <p>III Neure oilanda nabarra txikarra baina zabala, zetan hōa hi auzora etxean oilarra donala? Oi, hau egia! Daigun jira bi Maria.</p>           |   |

## ULERMENA

Bilatu biribilean ondoko hitzen baliokideak.



1. Zirin bedarrak:
2. Daigun
3. Jira bi:
4. Kapoiak:
5. Mutiltzen:
6. Horrek:
7. Oilanda:
8. Nabarra:
9. Txikarra:
10. Zetan:
11. Donala:
12. Nekusan:
13. Zestorik:
14. Heustan:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

 ALDEZ AURRETIK

Maite ez duen gizon batekin ezkontzera behartu dute Klara. Berau, baina, Salako jaun batez maite-mindurik da. Bion artekoa zapuzturik geratu da, aitak saldu egin baitio alaba aberatsenari. Neskaren amaiera tragiko baten aieruak nabariak dira.

## Atharratze jauregian

zitroin: limoi

batto: bat  
galtatu: eskatu  
arrapostu: eran-tzun  
ontu: heldu  
ukenen du: izango du  
ordoki: laua  
ur: erreka

naizu: nauzu

uken: ukan,  
izan  
enunduzun: ez  
nintzen  
ezkunturen: ezkonduko

zite: zaitetz  
portaliaia: atarira  
ingoiti: engoitik, dagoeneko  
erran izozu: esaiozu  
eri: gaixo

enukezu: ez nauzu

nahi dukezu jin: nahiko zenuke  
etortzea  
zien: zaren

I Atarratze jauregian  
bi zitroin doratu  
Hongriako Erregek  
batto du galtatu.  
Arrapostu uken du  
ez direla ontu  
ontu direnian  
batto ukenen du.

II Atarratzeko hiria  
hiri ordoki  
ur handi bat badizu  
alde bateti.  
Erregeren bidia  
erdi-erdi  
Maria Maidalena  
beste aldeti.

III Aita saldu naizu  
idi bat bezala.  
Ama bizi uken banu  
aita, zu bezala,  
enunduzun ez juanen  
Hongrian behera,  
bena bai ezkunturen  
Atarratzeko Salala.

IV Ahizpa juan zite  
portaliaia.  
Jngoiti horra duzu  
Hongriako Erregia.  
Hari erran izozu  
ni eri nizala  
zazpi urte huntan  
ohian nizala.

V Ahizpa, enukezu  
ez sinetsia  
zazpi urte huntan  
ohian zirela,  
zazpi urte huntan  
ohian zirela;  
bera nahi dukezu jin  
zu zien lekula.

VI Ahizpa jaunts ezazu  
arruba xuria;  
nik ere jauntsiren dit  
ene berria.  
Jngoiti horra duzu  
Hongriako Erregia;  
botzik kita ezazu  
zure sortetxia.

VII Aita zu izan zira  
ene saltzale;  
anaie gehiena  
dihariren hartzale;  
anaie artekoa  
zamariz igaraile;  
anaie ttipiena  
ene kontsolatzale.

VIII Aita, juanen gira  
oro alkarreki;  
etxerat jinen zira  
xangri handireki,  
bihotza kargaturik,  
begiak bustirik  
eta zure alaba  
tunban ehortzirik.

IX Ahizpa, zuaza orai  
Salako leihora  
iparra ala hegua  
denez jakitera.  
Jparra balin bada  
goraintzi Salari;  
ene korpitzaren xerka  
jin dadila sarri.

X Atarratzeko zeniak  
berak arrapikatzen.  
Hanko jente gaztia  
beltzez da beztitzen,  
andere Santa Klara  
hantik partitzen,  
haren peko zamaria  
urrez da zelatzen.

jaunts: jantzi  
arruba: soineko

botzik: pozik  
kita ezazu: utz ezazu

gehiena: nagusia  
dihariren: diruaren

igaraile: eramale

jinen zira: etorriko  
zara  
xangri: bihozmin

zuaza: zoaz

denez: ote den

korpitzaren xerka:  
gorputzaren bila  
sarri: laster  
zeniak: ezkilak  
arrapikatzen: jotzen

zamaria: zaldia  
zelatzen: zela jartzen  
(zaldien jesarlekua)

## IKASITAKOAK BILDUZ

Berridatzi erantzun edo segida zuzena.

1. Erromantzeetan autoreak ezaguna / anonimoa izaten da.
2. Literatur motari dagokionez, ahozkoa / idatzizkoa da.
3. Herrikoa / Kultura da.
4. Kantatzeko dira: beti / ia beti / batzuetan.
5. Poesian / Prosan sartzen dira.
6. Zeintzuk dira espresara nagusiak? Narrazioa / Elkarrizketa / Deskribapena.
7. Neurria beti da berdina / Neurriak era askotakoak dira.
8. Errima landua eta erregularra da. / Errima landugabea da eta irregularra.
9. Zeintzuk dira gai nagusiak? Gerrak / Amodiozkoak / Eresiak (hil kantak).
10. Zeintzuk dira ezaugarri garrantzitsu batzuk? Aukeratu ondokoetatik.

- |                         |                                   |                         |                            |
|-------------------------|-----------------------------------|-------------------------|----------------------------|
| A <input type="radio"/> | Elkarrizketaren erabilera berezia | G <input type="radio"/> | Joera lirikoa              |
| B <input type="radio"/> | Estilizazioa                      | H <input type="radio"/> | Euskara batuaren erabilera |
| C <input type="radio"/> | Deskribapen zehatzak              | I <input type="radio"/> | Ahapaldien arteko etenak   |
| D <input type="radio"/> | Errepikak                         | J <input type="radio"/> | Molde beti berbera         |
| E <input type="radio"/> | Paralelismoak                     | K <input type="radio"/> | Ahapaldi barneko etenak    |
| F <input type="radio"/> | Joera epikoa                      |                         |                            |

## ERROMANTZETIK IPUINERA

Erromantzeak, izan ere, kontak-poesia dira. Istorio bat izaten dute ardatz eta lirikotasun gehiago edo gutxiagorekin ipuin edo kondaira bat kantuaren bidez azaltzen dute.

Ondoren, landu dituzun erromantzeetako baten argumentua ardatz delarik, idatz ezazu narrazio labur bat. Ahal dela, erabil ezazu lehen pertsonako narratzailearen ikuspuntua.

## ZEURE BALADA SORTZEN

Gustukoena duzun erromantzearen doinua eta neurria erabiliz, balada berria asmatu behar duzu. Gogora ezazu kontak-poesia dela; beraz, lehenik istorioa, gertaerak asmatu. Ondoren, sar ezazu hautatu duzun moldean, erromantzeen ezaugarriak eta baliabideak aintzat hartuz: estilizazioa, errepikak, paralelismoak, narrazio-elkarrizketa bereziak. Gaia, besteak beste, amodiozkoa edo gerrakoa izan daiteke...